



AKTA
Udaleko Euskara Kontseilua
2021eko maiatzaren 4a

BATZARKIDEAK

Mikel Uriguena, presidentea (Herriaren Eskubidea)
Ane Abanzabalegi Areitio, EH Bilduren ordezkaria
Neskutz Rodriguez Ormazabal, Herriaren Eskubidearen ordezkaria
Malen Urkullu Arieta-Araunabena, EAJren ordezkaria
Jessica Ruiz, PSE-EE PSOEn ordezkaria
Maite Euba Areitioaurtena, Udal Euskaltegiko zuzendaria
Mertxe Mujika, Abarrak AEK-ko ordezkaria
Aitzol Gaztanazatorre Gorritxategi
Markel Sanchez Zelaia, Berbaroko kudeatzailea
Moises Urien, Gotzonen ordezkoa
Ametz Menika Bernas, euskara trebatzailea
Fernan Ruiz Larringan, euskara dinamizatzailea

IDAZKARIA

Juan Antonio Atutxa Balentziaga, euskara teknikaria

EZIN ETORRI IZANA adierazi dute:

Gotzon Gomez Barrenetxea, Gerediaga elkarteko ordezkaria
Jone Guenetxea Arrinda, Anbotoko zuzendaria

Tokia: Berbagunea (Udal Euskaltegia)

Hasiera ordua: 18:00

Amaiera ordua: 19:35



1. Aurreko batzarreko akta onartzea

Aho batez onartu dugu apirilaren 20ko batzarren akta.

2. Euskararen Udal Araudia aztertzea (1 eta 2 kapituluak)

Lehen azalpenak Mikelek eman ditu. Ondoren, Tonik jarraitu du araudi zaharraren eta berriaren arteko diferentziak aurkezten. Sarrera eta Xedapen orokorrak irakurri eta 2. puntuko artikulua aztertzen hasi gara, banan-banan.

Hainbat iritzi eman eta ekarpen egin ditugu, eta zenbait gairen inguruan eztabaidak ere bai.

Egindako ekarpenak eta proposatutako aldaketak "eranskin" batean bildu ditugu eta hurrengo batzarrean berretsiko ditugu.

Zalantzak eta eztabaida sortu duten artikulua:

2.1.3. Internet eta sare sozialak → udaleko webgunearen eta sare sozialen kudeaketaren gaineko zalantza aipatu ditugu, besteak beste, webgunea egin duen enpresa, argitalpenak, berriak eta mezuak emateko hizkuntza irizpideak...

2.1.6. Herritarrekiko harremanak → 21. artikulua nahasi samarra zen, herritarren eskubideak eta neurriak aipatzen baitzituen. Aurrerantzean, 21 artikulua, herritarren eskubideak baino ez ditu jasoko, eta artikulua berri bat sortuko dugu, 22 artikulua, eskubideak betetzeko neurriak jasoko dituen.

Jatorrizko dokumentuak euskaraz idazteari eta udal organoen dokumentazioa eta funtzionamenduari buruzko iritzia → dokumentuak sortzeko hizkuntza, gaitasuna eta horren prozesua dela eta, zalantza sortu dira (Moises, Mertxe, Aitzol). Langileen hizkuntza eskakizunari lotuta doala aipatu dugu eta, batez ere, txosten teknikoak idazteko (eta ulertzeko) zailtasuna dagoela. Hirigintzan eta administrazio orokorreko errealitatea da, baina udaleko beste sail eta erakundeetan egoera hobe da. Ahalegin progresiboa egin beharko dugu eta helburu lorgarriak zehaztu (Mikel).

Moldaketak zirriborroan: Maiatzaren 4ko batzarrean **horiz** zeuden hainbat artikulua onartu eman ziren, horrexegatik, orain bidalitako zirriborroan kolorea kendu zaie. Baina agertzen dira batzuk **urdinez** koloreztatuta: batzar horretan egindako ekarpenak dira, maiatzaren 25eko batzarrean onartu beharrekoak. Gainerako artikulua, 27tik aurrera, ez dira ukitu.

Oharra: Esan bezala, 21. artikulua moldatu izanaren ondorioz, artikulua berri bat sortu da: 22. artikulua. Hortaz, une honetan, guztira, 72 artikulua barik 73 ateratzen dira.

19:30ak direnean, batzarra amaitutzat eman dugu. Maiatzaren 25eko batzarrean, lehenik eta behin, oniritzia emango diegu, hala badagokio, **urdinez** agertzen diren artikuluei. Ondoren, **2.1.7. Harreman instituzionalak** ataleko 27. artikuluekin hasiko gara, hau da, zalantza argituko ditugu eta ekarpenak eta iradokizunak barneratuko.

Adostekoak	Batzarren maiztasuna; araudiak bi hilerik behin egitea zehazten du. Kontseiluan landuko ditugun gaiak eta dinamikak .
-------------------	--

Hurrengo batzarra: maiatzaren 25ean, 18:00etan, Berbagunean.